

## BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure bezeroekin harremanak izateko, denda fisiko bat izango dugun arren, gehienbat Web Orrialdea erabiliko dugu.

Hasteko, kontu bat sortuko dugu sare sozial desberdinetan, Instagramen, Youtuben, Tiktoken... Modu honetan, gure produktua, gazteentzat bideratuko dugu baita ere. Lanerako mugikor bat izango dugu, WhatsApp-a eta Gmail-a bertan edukiz, gure bezeroekin errazago kontaktuan jartzeko. Aplikazio horiek hautatu ditugu errazak direlako erabiltzeko eta gaur egun gehien erabiltzen direnak direlako. Hau guztia, azpikontratazioaren bidez kudeatuko dugu.

Instragramen bidez, zozketak eta promozioak egingo ditugu, modu honetan, gazteak erakarriko ditugu eta modu honetan, partekatzearen bidez ere ezagunak izatea espero dugu.



Sare sozial guztietan, deskontu kodeak emango ditugu gure kontua jarraitzen dutenentzat, hau da, gure aplikazioan eskaera egiterakoan, noizean behin gure sare sozialetik publizitatu dugun deskontu kodea jartzeko baldintza izango dute. Honen bidez, kodea jarriz, ehuneko baten deskontua edukitzeko aukera izango dute. Horrela, bezeroei bultzatuko diegu gure produktua erostera, deskontu bat dutelako eta merkeago aterako zaielako.

Gainera, Espainia mailan famatuak diren "influencer"-ei ordainduko diegu gure produktua sustatzeko haien jarraitzailei, adibidez: Dulceida, Nuria Blanco, Ibai Llanos... etab. Arlo desberdinetako pertsonai publikoei deituko diegu jende gehiagori eta gustu desberdineko jendearengana iristeko gure produktua. Modu honetan, gazteak ikustean haien "influencer" gustukoena gure produktua erabiltzen dutela, gogo gehiago izango dute gure produktua erosteko.

Iragarkiei dagokienez, sare sozialak erabiliko ditugu baita ere. Instagram, Tiktok, eta Twitterren bidez emango dugu ezagutzera gure produktua. Sare sozial horiei ordaintzeko posibilitatea dago diru kopuru bat haiei ordainduz, eta nahi duzuna iragarkiko dute. Modu hau izango da nagusia iragarkiak ipintzeko, gaur egun modu

errentagarriena delako, gehienbat mugikorraren bidez edo telebistaren bidez izaten baita. Normalean erakargarriagoa da norbaitentzat mobilean iragarkiak ateratzea, eta atentzio gehiago ipiniko dute, horregatik aukeratu dugu modu hau gure produktua publizitzeko.

Hasteko, webgune bat sortuko dugu gure informazioa han jartzeko, eta gure bezeroak jakiteko nola dagoen gure produktua sortuta, zer material erabiltzen ditugun, zer produktu motak eskaintzen ditugun... etab. Webgune hau beste modu bat izango da gure bezeroekin harremanetan jartzeko. Gainera, gure denda fisikoetan, arreta berezia emago zaie bezeroei, gure produktuarengan informazioa jasoko dute, eta zalantza guztiak argituko dizkiegu.